



## Ehun urte aste honetan

**B**ai, ehun urte beteko dira aste honetantxe Eusko Ikaskuntza Alkartia sortu eta gure herrixan bere lehenengo Batzarra ospatu ebenetik: 1918ko agorraren 1etik 8ra billera eta hitzaldi inportante ugari izan ziran unibersidade zaharrian gai desbardiñen gaiñian; plazan eta pelotalekuan jolas, joko eta erakustaldi asko eskiñi xaten herrittarairi; Garaiñeko fabrikan egokittutako areto zabalian hainbat kontzertu eta teatro-emunaldi ikusi ahal izan euen kongresistak; era askotako pertsonak hurre-ratu ziran Oñatira aste horretan: agintarixak, diputaduak, erregia, obispuak, irakasliak, idazliak, musikuak, artistak, deportistak, hizlarixak, entzuliak, ikusliak eta abar luzia.

Erabagi garantzitsuak be hartu ziran orduan. Eusko Ikaskuntza Alkartia bera gauzatu ez ezik, euskeriaren akademixia, Euskaltzaindixa, sortzeko asmua be Oñatin mamittu zan egun hareittan. Gerora euskaltzain izango ziranak kongresu-lanetan jardun euen, bide batez aspaldiko ametsari aurrerabidia emuteko ahalegiñetan: Resurrecion Maria Azkue, Julio Urkijo, Koldo Elizalde, Arturo Campion, Domingo Agirre, Raimundo Olabide, Karmelo Etxegarai, Joxe Migel Barandiaran eta Manuel Lekuo-na, bestiak beste.

Oñatiko herrixa etzan atzera geratu: ixa berrehun txantxikuar agerketan dira kongresisten izen-zirrindaran; kontzejuak parte haundixa hartu eben egun hareittarako antolamenduan; oñatiarrak izan ziran agorraren 5ian kale-jaixetako protagonistak: neska gaztiak maiak izeneko ikuskizunian eta Goribar auzokoak ezkontza-ariuaren erakustaldixan; eta herrittar askok oso hurre-tik jarraitu euen aste berezi haretako gertakari eta gorabeherak: goguan dakot gure aitta, 50 urte beranduago, zein ondo akordaitten zan orduko jai-giruz.

Aurtengo zemendixan izango diran ospakizunen barruan, Artixa taldiak moldauko dauen erakusketa batian batzar haretako argazki-pilatxua ikusi ahal izango da. Aurrerapen moduan hona orain dala ehun urte, kongresua zala-eta, Oñatira etorritako agintari eta jauntxo batzuen fotografia. Ezkerretik eskumara: Daniel Aldama Aldama, Arabako diputadu nagusixa; Jose Maria Orbe Gaitan de Aiala, Valdespinako markesa eta Gipuzkoako diputadu nagusixa; Balentin Zubizarreta Unamuntzaga, Camagüey-eko (Kuba) obispua; Leopoldo Eijo Garai, Bitorixako obispua; Mateo Mujika Urrestarazu, Burgo de Osma-ko (Soria) obispua; Ramon de la Sota Aburto, Bizkaiko dipatadu nagusixa; eta Juan Gordoia Perea, Oñatiko alkatia.

J. E.

Oharra. Aldizkari honetako aurreko zenbakixan beheko illaran ezkerretik lehenengo agiri dan neska dantzarixa ezta Maritxu Zarketa, Maritxu Uribarri baiño, Tomasen alabia.